

Etika zaintzapean

Antton Izagirre

Euskal Herrian bizi izan dugun gatazka politikoaren eta bortxari buruzkoaren errelatoa egiterakoan, maiz, askok, ikuspegi eta printzipio etikoetatik abiatuak egi- tea eskatu izan digute; nolabait ere, ideologiak edo politikak izan dezakeen alderdikeria ekidin nahiaz.

Hala balitz, horrek egiazki ideologia politikotik urrunduko bagintu, gauza bera eskatu beharko genioke gizakion eguneroko jardunean eta gizartean txertaturik ditugun ekimen anitzi. Ger-

tuen entzun eta ikusitakoen artean adi- adi jarrarazi gaituzten bizpahiru adibi- de horren lekuko.

Iruñean berriki eman den epaiketan, zientziaren eta legearen babesean hor entzun ditugu psikologoak eta legela- riak, bortxatua izan den neska gaztea- ren eguneroko bizimodua zelatan jarri eta haren egunerokoari buruzko joka- moldeak epaitzen. Non geratu dira prin- tzipio etikoak?

Zein kode etiko darabilte gure politi- koek arma bidezko erasoan aurka jardue-

ten direnean eta armaz betetako ontziak Bilboko portutik itsasoratzean isilik ge- ratzean?

Nola kalifikatu preso gaixoen gaineko txostenak egitean politikoen interesen esanetara makurtzen diren sendagileen printzipio etikoak?

Eta Katalunian erasoan ari diren al- derdi politikoekin akordioak dituztenek ere arau etikoak idatzi omen dituzte.

Etika gora eta behera; ez da gezurra, inor gutxik egiten diola “kosk” jaten ematen dion eskuari. •

Estremera, bost izar

Miren Azkarate
Badiola

Z e gogo sartu zaidan toki hori ezagutzeko! Zuei ez? Luxua, ge- la indibiduala edo lagun bate- kin elkarbanatua, igerilekua, li- burutegia, gosaria, bazkaria eta afaria dena barne, antzerkia, dena garbi-gar- bia, mediku zerbitzu ezin hobeak! “Ma- rina d’Or Ciudad de vacaciones” ema- ten du, ezta? Edo are hobeak!

Ba hau berria omen da, lehengoan Espainiako Atzerri ministroari entzun nion Estremera delako leku batez ho- rrelako hitz politak eta deskribapen zo- ragarri hori egiten.

Ezin nuen sinetsi kartzela batez ho- rrelako azalpen bat egin zitekeenik. Baina bai, hor zegoen Alfonso Dastis ministroa ahoan irribarre batekin, ez presoek bakarrik, edozeinek nahiko lu- keela horrelako leku batean bizi esa- nez. Aurpegia behar da gero, eta barre- na, horrelako baieztapenak egiteko. Errespetu gutxia edo eza aipatu gabe noski! Espetxeaz ari zen. Pertsona bati bere askatasuna kenduko dion leku ba- tez. Luxutik ezer ez duena, espazio ziki- nez osatua, bizileku bezala bederatzi pausu aurrera eta atzera egin dezakezu-

na, ez duzuna gainera aukeratzen zeine- kin partekatzen duzun, ezezagun baten aurrean dutxatu eta kaka egitera behar- tuta zauden ziega batean, beste 143 per- tsonarekin banatuko dituzun espazio komun eta txikietan, igerilekua bi hila- betean zehar astean behin ikusiko du- zuna (kasurik onenean), antzerkia ber- din, medikua ez dakizunean mediku den edo iturgina (hori bere aurrera iris- tea lortzen duzunean), eta abar luze bat.

Hain zoragarria izanik Estremera, ha- laxe salduko al die bere alderdiko auzi- petu guztiei? •